




IPIa %10,9 hazi zen otsailean urte arteko tasan

Industria produkzioaren indizea
Urte bakoitzeko otsaila




Iturria: Eustat.

Industriaren produkzioa %10,9 hazi zen otsailean, 2021eko hil beraren aldean. Aurten lortutako ekoizpen maila 2008tik eskuratu den handiena da. Ondasun talde guztiek jaso zituzten hazkunde tasa handiak, baina nabarmentzekoak dira ekipamendurako ondasunen fabrikazioa (%19,6), kontsumoko ondasunena (%12,1) eta energiarena (%11,9).

Afliazioak pandemiaren aurreko maila gainditu du

Gizarte Segurantzako afliazioa
Urte bakoitzeko martxoa. Milak




Iturria: Gizarte Segurantza.

Martxoan, 980.000 afliazio baino gehiago erregistratu ziren Gizarte Segurantzari. Kopuru hori 2021eko martxokoa baino %2,7 handiagoa da, eta serie historiko osoko handienetakoa. Hazkunde tasak zertxobait handiagoak izan ziren emakumeen artean (%2,9) eta zerbitzuen sektorean (%3,1).



Langabezia erregistratua %9,9 jaitsi zen martxoan

Langabezia erregistratua
Urte bakoitzeko martxoa. Milak




Iturria: SEPE.

Martxoan, Lanbideren bulegoetan langabetu gisa sailkatutako pertsonen kopurua %9,9 murriztu zen 2021eko martxoarekin alderatuta. Langabezian zeudenen kopurua 117.000 baino pixka bat handiagoa izan zen, azken hamalau urteetan martxoan erregistratu den kopururik txikiena baita.

Kontratuen kopurua %6,6 hazi zen martxoan

EAEn eginiko kontratuak
Urte bakoitzeko martxoa. Milak



Iturria: SEPE.

Kontratazioak gora egin zuen 2022ko martxoan, eta 71.000 kontratu baino gehiago sinatu ziren, hots, aurreko urtean baino %6,6 gehiago. Kopuru hori azken hiru urteetako altuena bada ere, oraindik ez da aurreko hiru urteetako mailara iritsi. Beste aldetik, kontratu mugaga-beak guztizkoaren %20 baino gehiago izan ziren martxoan.